

## OLATZ BEOBIDE

Deskribapena: Kike kamerino bateko aulki batean exerita agertzen da.

Kike: “Orain arte beldurrak, ahotsa eta mezua jorratu ditugu beraz, bada garaia, gorputz hizkeraz ere aritu gaitezen. Baina horretarako, oholtzara joan behar dugu, bertan, Olatz Beobide daukagu zain eta. Goazen!”

Deskribapena: Kike altxatzen ageri da eta ondoren oholtza gainean Kike Olatz Beobiderekin elkarrizketan.

Kike: “Olatz, eta zergatik da horren garrantzitsua gorputz hizkera gure eguneroko bizimoduan?”

Olatz: “Adibidez, e zu iristen zea leku batea, ikusten dituzu hor bi pertsona...”

Kike: “Han daude...”

Olatz: “Zuk ezagutzen ez duzun hizkuntza batean ari dira berriketan eta hala ere ulertu egiten dituzu! Badakizu maite diran, badakizu...”

Kike: “Haiek ez!”

Olatz: “Banku batean atrako bat preparatu behar duten edo misteriotsua den gertatzen zaiena edo batak bestea agintzen duen. Sartu zaitez denda batian, sartu pelukeria batean, dentistaren kontsultan, zenbat gauza kontatzen dizkizu pertsona horren jarrerak, bere presentziak, bere jokaerak... hori dena hitz egin gabe. Garrantzia dauka bai ala ez?”

Kike: “Bai noski! Horregatik, goi mailako diskurtso batzuk erakutsiko dizkizut eta ea nola interpretatzen duzun bi pertsonaia hauen gorputz jarrera.”

Deskribapena: Kikek tablet-a batean Olatz-i bideoak erakusten dizkio. Lehenengoan, Kike trajeatuta ageri da zutik, atzean Gabonetako zuhaitza eta jaiotza dituelarik.

Lehenengo bideoko Kike: “Gabon guztiok! Eguberri egun hauek, etxeokoin elkartu eta asmo berriak azaltzeko egunak izaten dira.”

Kike: “Ze inpresio?”

Olatz: “Inpresioa ematen dit pixka bat, edo nahita egiten du, eta orduan esketx ikaragarria da, bikaina, edo bestela, pixka bat bueno, ba, gehiago eman nahi duen pertsona bat baina ez dauka bere buruan, hola, ez? Konfiantza gehiegi. Apaiz tankera baina apaiza hor geatu dena pixka bat, ez dituna lortzen hor pulpilotik jendia altxatzia. Txukuna, txintxua, eutsiya, beldurtua, korrektoegia... hotza, hotza, azkenean.”

Kike: “Hotza. Bueno eta ea beste hau!”

Deskribapena: Bigarren bideoa erakusten dio tablet-an eta bertan Kike ageri da jendaurrean hizketan.

Bigarren bideoko Kike: “Eskertu behar dizuegu, atea ireki diguzuen guztioi, sekulako harrera jaso dugu guztietan, eta espero dugu jo ez ditugun ate guztiak joko ditugula.”

Olatz: “Gustoa ikusten det, ikusten det defensarik gabe, ez? Bea dan bezelakua, ezkereskubi, bere nerbiosiyo, pozik eta bueno, honekin inplikatu ingo ginan, e!”

Kike: “Bai?”

Olatz: “Bai, gustora egongo ginan berari beida eta esaten, bueno, majua da, majua da, zerbait dauka, bai bea hor dago eta gurekin hizketan ari da. Hori askoz inportanteagoa da.”

Kike: “Ba pozten naiz! Aizu Olatz, eta guk nola hobetu genezake gure gorputz hizkera?”

Olatz: “Bueno, batez ere errexena da jakitea zer ez dan egin behar. Hasteko, ba, galdu behar dia pixka bat itxierak, ez? Ba horrela egotia, hola, e danak hola pixkat, ezta? barruraka, barruraka... Hoiek oso gaixki dijuaz. Ta pues normal, normal, irekita jun, beti pentsatu presentzian, zu zeuk espazio guztia okupatu behar duzula eta gero ere, ba, oso inportantea da begiyak. Begiradak, ezta? Norbaitek begiratzen ez badizu, malo!”

Kike: “Hori txarra izaten da, e?”

Olatz: “Bueno, konfiantza falta da, ezta? Eta ordun zuk ere sentitzen duzu...”

Kike: “Jendea zeharka ikusten duzunean, edo...”

Olatz: “Bai, bai, ez dula zurekin egon nahi, edo beldurtu iten dezula eta orduan inportantia da begirada irikita egotea, lasaia.”

Kike: “Bai, ze batzuk badira, e? Hola...”

Olatz: “Ez, ez hola agresibo jartzen dianak ere, hoiek bakizu ze pasatzen dan, ezta? Jendeak atzeraka itten dula eta hasten dira ja ixten, ordun irikita, zu zeu, besteak ere irikita egoteko, ezta? Eskuakin ere lasai, ze hoi izaten da gauzetako bat, ezta?”

Kike: “Bai, ez? Askotan gertatzen zaigu zer egin.”

Olatz: “Zer egin eskuekin. Bai, pentsa, aktorarik bikainenak ere, eta bueno, pertsonajeak ere asko laguntzen du, ba apaiza baldin bazea, edo esaten genuna, hementxe baldin bazoaz baina bestela, ba lasai egon, gorputzak ere, adierazi dezala sentitzen duena eta biziya izan dadila, ordun ba, irekita egon, konfiantza,...Hankak ere inportante, e? Ez gogorregi, ez tinkoegi. Pisua lasai, lasai, utzi, utzi gorputza espresatu dadila, gehiegi mareatu gabe baina egon dadila, lasai. Ta horrekin, ba, zu hobeto sentituko zea eta ingurukoak zurekin egon nahiko dute.”